



EAJko hautagaiak herrian eta Gipuzkoan aurrera eramango duten programari buruz mintzatu ziren.



Bildu alderdiko ordezkariak, Kale Nagusian, Brigitarren parean egoitza ireki dute.



PSE-EEko kide eta hautagaiak merkatuan arrosak banatu zituzten.



EBko kideak ere merkatuan egon ziren haien programa banatzen.

Abiatu da hauteskunde kanpaina Lasarte-Orian

Alderdi politikoetako ordezkariak euren proposamenak ezagutarazteko ekitaldiak egin dituzte egun hauetan

Hauteskundeetako kanpaina hasi da eta egun hauetan alderdi desberdinetako furgonetak ikusi eta entzun izan ditugu gure herrian.

Honetaz gain, hauteskunde ekitaldiak egin dituzte alderdiek herritarren bozkak lortzeko.

Astelehenean EAJ-ko autobusa San Pedro eliza ondoko Elizatze plazan egon zen. Estitxu Alkorta hautagaiak, eta Markel Olano alduen nagusiak bere alderdiaren kezak eta programa azaldu zituzten.

PSE-EE, EB eta Bildu alderdiak, berriz, asteazkenean jardun ziren.

PSE-EE alderdiko Jesus Zaballos eta Rodolfo Ares, besteak beste, merkatuan egon ziren arrosak banatzen. Arratsaldean, Sasoa eta ikastetxean programa azaldu zuen Zaballos alkategaia.

Rikardo Ortega eta Arantza Gonzalez EBko hautagaiak ere


merkatuan ibili ziren haien programa azaltzen eta beranduago Michelin enpresako atera joan ziren.

Bildu alderdiko kideak ere merkatuan egon ziren goizean eta arratsaldean egoitza berria zabaldu zuten Kale Nagusian.

Bestalde, Udal hauteskundeetako erreportajeekin jarraituz, 4. eta 5. orrialdeetan, ekonomiari buruzko hautagaien iritzia irakurri daitezke. •

KIROLA /6

Herriarteko pilota txapelketan hasiko da gaur Lasarte-Oria Bidegoianen



Goiegi-Gora eremuan zortzi solairuko hotela egitea onartu zen Udalbatzarrean /3

Estitxu Alkorta

bozkatu EAJ PNV Jakin eta egin

Lasarte-oria

ONENA EMATEKO GARAIA

Neure kabuz



Abiadura Handiko Trena

Duela gutxi zentzu handiko artikulu irakurri dut (Bartzelonako bi ekonomiarik idatzita) abiadura handiko trenari (AHT) buruz eta oso interesgarria denez jende askori bidali diot. Onartu behar dut gai honi buruz, ideia orokor batzuk salbu, gutxi nekiela eta ez nengoe-la "posizionatuta" (honek ziurrenik "lagunak" galtzea eragin dezake, baina tira ...). Hona hemen ideia nagusiak.

Espainia da, Txinaren ondoren, munduan AHTko kilometro gehien duen Estata, baina erlatiboki lehenengoa. Lurralde-koehesia bultzatu nahi izan du, baina, aldiz, finantza- eta gizarte-errentabilitateak negatiboak izan dira. Ingu-rumen-balantzea ere negatiboa izan daiteke trenbidea eraikitzeko sortu den kutsadura, eta tren berri eta autobusarekiko duen efizientzia txikiagoa kontuan izanda. Hegazkinei trafikoa asko "lapurtzen" dienean ere, kutsadura murrizteko oso modu garestia da. Erabilitako baliabideak ere kostu handia izan dute horiek erabil zitezkeen beste helburuak kontuan izanda. Gainera, gardentasun gehiago, eta datu zehatz gehiagoren beharra dago (beste baterako utziko dut Oriarako "metroa" eta 50 milioi euro).

Beno, besterik ez ... Ah, bai!!! Nor izango da hurrengo alkatea? Oker ez banago Pablo gure zutabekidea horretan dabil. Orain ulertzen dut zergatik "pikatu" zen nire galdera errepikakorrarekin duela aste batzuk. Nire desioa: garai berri bat hastera. Herriak du orain hitza.

Iñaki Errauskin

Zorion-agurrak



Julen, Jaione eta Juan Carlos
Zorionak hirurei! Muxu handi bat amatzu eta familiaren partetik!



Julen eta Oier
Zorionak bikote! Zazpina muxu handi zuen familien partetik!!!



Eneko
Zorionak txapeldun!
Esku bete urte dituzu dagoeneko! 5 muxu guraso eta Aritzen partetik.




Maitane
Zorionak sorgintxo!
Dagoeneko 3 urte dituzu! Muxu eta besarkada handiak familiaren partetik.



Julen
Zorionak maitia! Asko maite zaitugu, jaso !! Muxu handi! Naroa, aita eta amaren partetik.



Izan
Zorionak poxpolin, txokolatetzko lau muxu handi, familiaren partetik.



Asier
Zorionak zure laugarren urtebetetzean. Muxu handi bat familia eta lagun partetik.



Eneko
Zorionak txapeldun!
Oso ondo pasa. Muxu bat Oihane, amatzu eta aitaxoren partetik.



Nora
Zorionak printsesa!!!!
Muxu handia familia osoaren partetik.



Nerea
Zorionak guapisima!
Zure urtebetetzea izanda? A bai! Tortilla goxoa jan genuen! Muxuk



Imanol
Zorionak Imanol!!! Oso ondo pasa zure eguna familia eta lagunekin. Segi horrela txapeldun.

Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia

Bidaia ireaupena: 15 minutu

Lanegunetan	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.

Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Lizarran pisua salgai. Aukera paregabea. Ez zara damutuko. Tel.: 677 678 270.

• Etxebizitza salgai. 4 gela, sukaldaria, egongela, bainu bat eta komuna bat, bi balkoi, trastero bat eta garajea. Denak kanpora ematen du. Decathlonetik gertu. Harremanetarako, 635 710 170.

• Etxea alokatzen da Usurbil erdian, bi logela. Tel.: 685 724 771.

Lan-eskaientzak

• Euskara irakaslea behar da haur bati errefortzu klaseak emateko. Astean ordu bete edo bi eta posible bada, asteazkenetan. Harremanetarako zenbakia, 630 723 515.

Lan-eskariak

• Gizonezko batek lan egingo luke zamalanetan, lorezaintzan, erai-kuntzetako zaintzaile, publikitate banatzen e.a. Harremanetan jar-tzeko, 667 808 934.

• Lasarte-Oriako neska gaztea eskaientza da kurtsuan zehar lana egiteko,umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Andre euskalduna eskaientza da adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 618 097 676.

• Pertsona arduratsuak pertsona adindua eta gaixoa zaintu, atezain lanak, garbiketa lanak edo bestelako lanak egingo lituzke. Pertsona esperientziaduna eta tratu onekoa. Harremanetarako zenbakia, 680 983 527 (Carlos)

• Magisteritza diplomatu eskaintzen da ingelerako klaseak emateko, DBH4 mailara arte. 660 465 247, Miren.

Bestelakoak

• Josteko makina pedalauna, kendu edo etxetik atera nahi baduzu, gustora hartuko nuke. Tel. 943 247613 edo 615 709117 Pilar.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Jaiotzak

- Mahyuba Mohamed Etlemedi, maiatzaren 7an
- Ekaitz Muxika Egia, maiatzaren 6an

Heriotzak

- Antxon Arruti Zubiria, maiatzaren 8an, 52 urte zituela.
- Victoriano Garcia Mateos, maiatzaren 5ean, 76 urte zituela.
- Maritxu Arozena Goenaga, maiatzaren 4an, 76 urte zituela.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 13

Urbistondo, San Frantzisko I

Tel.: 943 366567

Larunbata, 14

Orue, Jaizkibel plaza 2

Tel.: 943 362652

Igandea, 15

Orue, Jaizkibel plaza 2

Tel.: 943 362652

Astelehena, 16

Orue, Jaizkibel plaza 2

Tel.: 943 362652

Asteartea, 17

De Miguel, Kale Nagusia 32

Tel.: 943 371151

Asteazkena, 18

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atea

Tel.: 943 361774

Osteguna, 19

Gil, Kale Nagusia 24

Tel.: 943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucla, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Goiegi-gorako hotelaren proiektua aurrera doa

Preso politikoen aldeko taldearen eta Udaleko langileen mozioak ez ziren onartu

Lorcako lurrikarak eragindako biktimei elkartzasuna adierazteko minutuko isilunearekin hasi zen legealdi honetako azken ohizko udalbatzarra. Ostean, Goiegi-Gora HIEan Plangintzako Arau Subsidiarioak puntualki aldatzeko dokumentuari jarritako alegazioen idatzia onartu zen. PSE-EE eta PPren botoekin. Proiektuaren eta aldatetaren aurka agertu ziren beste alderdiak, udalbatzarrean egon ez ziren EB eta H1! izan ezik.

Izan ere, hauen ustez, nahiz eta herriak igerileku irekiaren erabileraz baliatu eta lanpostu gehiago sortu, hotelak zortzi pisu izango ditu.

Honetaz gain, Teresategi Hegoaldea HIEan Udalerriaren Plangintzako Arau subsidiarioak puntualki aldatzeko plangintzarako irizpide, helburu eta soluzio orokorra berretsi ziren PSE-EEren bozkek.

EAJk eta Ezker Abertzaleak horren aurka bozkatu zuten. LOHP eta PPko ordezkariak aldiz, abstentzioaren alde.

Errekaldeko eremuan egingo den industrialdea eta honen bideen hobekuntzaren proiektuko lehenengo pausua da hau.

Mozioak

Hau guztiaz gain, EAJak aurkeztutako mozio bat aurrera ateratu zen: Gizarte Larrialdietarako



Goiegi-Gorako hotelak izango duen itxuraren montajea. Arg.: Lasarte-Oriako Udala

rako Laguntasun gastuak eta laguntza eskuratu dezaketeko pertsona kopurua murrizteko lan eta gizarte ekintza sailburuak emandako agindua kentzeko eta araudi hori EUDELen bitartez adostu dadila eskatuz.

EAJ eta LOHPko zinegotzien aldeko botoa eta beste guztien abstentzioa izan zuten.

Bestalde, Ezker Abertzaleko, Ezker Batuako eta Hamaika bat alderdietako zinegotziek batera aurkeztutako Lasarte-Oriako preso politikoen aldeko taldearen mozioa bertan behera geratu zen PSE-EE eta PPren bozkei esker.

Honetan, 25 urte kartzelan egin eta Parot dotrina ezarri zaien Lasarte-Oriako preso politikoen kaleratzearekin ados agertzea, Parot dotrina bertan behera uzteko eskaera egitea eta senideei elkartzasuna

adieraztea eskatzen zitzaion Udalari.

Udal langileei babesik ez

Era berean, urgentziazko mozio bat ere aztertu zen. LOHP eta Ezker Abertzaleko zinegotziek Udal langileen Komitearen eskakizunak eraman zituzten udalbatzarera.

Izan ere, "Lasarte-Oriako enplegatuei inoiz ez zaie Udaltz hitz lan hitzarmena aplikatu bere osotasunean" adierazi zuten LOHPko zinegotziak.

PSE-EEren aurkako bozkek atzera bota zuten mozioa. EAJ abstenitu egin zen "krisi egoera honetan ezin delako konpromiso hori hartu".

Honetaz gain, dirulaguntzak emateko araudia onetsi zen eta galdera eta eskaerak egon ziren. Puntu horiek asteleheneko TXINTXARRIN azalduko dira. •

UDA KO TXOKOAK

Azken astea Txokoetan izena emateko

Haurrek udan ongi pasatzeko aukera zabala eskaintzen du Ttatu Kultur elkarteak Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz antolatzen dituen Udako Txokoetan.

Txikientzako psikomotritzitate programa, HH5 eta LH2koentzat naturaz eta kirolaz gozatzeko aukera eta LH3 eta LH6koek abentura eta kirolaz betetako egunak biziko dituzte.

Hauetan guztietan, izena emateko epea maiatzaren 19an bukatzen da, beraz, azken astean sartu gara ia.

Era berean, aurten Udako Txokoetan berrikuntza bat dagoela azpimarratu dute antolatzaileek. LH2 eta LH3 mailako haurrek uztailaren 26tik 29ra Askizko ezagutzeko aukera izango dute.

Lau eguneko irteera soilik edo Txokoak gehi irteera daitekeela azpimarratu dute antolatzaileek. Animatu eta izena eman uda zoragarria igaroko baitute Udako Txokoetako haurrek.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Andoni Otamendik ondo hasi du lehia

Andoni Otamendik oso ondo hasi du Gipuzkoako Txapelketa. Irabazi egin zuen lehenengo saioan, Orion igandean, 321 punturekin eta final-zortzirenetara pasatzeko lehen pausua eman zuen. Asteburu honetan bertso eskolan dabilzan beste bost lagunek daukate kanporaketa saioa, Zigor Iriondo, Unai Gaztelumendi eta Ane Labakak larunbatean, Beñat Iguaran eta Asier Azpirozek, igandean. Unai Muñoak irailaren 25ean final zortzirenetan hasiko du txapelketa. Lasarte-Orian final-zortzirenetako bat egingo da, hain juxtu urriaren 1ean arratsaldeko 17:30ean Kultur Etxean.

Asteburu honetan, Zigor Iriondo eta Unai Gaztelumendi larunbatean Mutrikuko Zabil kultur etxean, arratsaldeko 17:30ean kantatuko dute, Ane Labakak larunbatean ordu berean Alegiko Kultur Etxean eta igandean kantatuko dute Beñat Iguaran eta Asier Azpirozek Lezoko Tiñelu elkartearen arratsaldeko 17:30ean.

ARANTZA-LASARTEORIA

Ibilaldirako izena emateko azken eguna da gaur

Ostadar Mendi elkarteak San Juan Xar eremutik, Arantzatik Lasarte-Oriako mendiri ibilbidea antolatu du maiatzaren 21erako. Ondoren, indarrak berreskuratzeko Zubietako elkartearen afaria izango dute. Izena emateko jo Lagunak elektrizitate dendara. Inskribatzeko azken eguna gaur da. •



Arg.: Laura Noguera



Jose Maria Setien gotzain emeritoak eman zion hasiera aurtengo jardunaldiari.

Etikaren erabilera aztergai

Gaur egun etikak bizi duen krisia eta zehazki, ekonomia, ingeniariaren genetikaren eta hedabideen arloan etika nola erabiltzen den aztertu dute egun hauetan Danok Kide elkarteak kultur etxean antolatu dituen Balioetan Hezi VIII. jardunaldietan.

Astelehenean hasi eta bart amaitu zen hitzaldi sortan, Jose Maria Setien, Arturo Garcia, Pablo Eraso eta Juan Pagolak parte hartu dute hizlari moduan.

Aurten ere, herritar ugari hurbildu da saioetara eta gainera, galdera ugari egin dizkiete hizlariak. •

Mendikamentuen erabilera hobetzen

Lasarte-Oriako alkateak, Jesus Zaballosek, eta Gipuzkoako Sendagaigileen elkarteak presidentek, Angel Garayk, elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten asteartean Etxez Etxeko Laguntzako erabiltzaileen medikamentuen erabilera optimizatzekeko programa udalerrian martxan jartzeko.

Lasarte-Oriarekin dagoeneko Gipuzkoako 26 udalerriri dira Gipuzkoako Sendagaigileen elkartearen ekimen honetan parte hartzen dutenak.

Hitzarmen honen helburua da Etxez Etxeko Laguntza sistemara atxikita dauden pertsonen medikamentuen erabilera hobetzea.

Era berean, pertsona hauei sendagaiak eskuratzeko errazte eta kasu bakoitzean agindutako tratamendua betetzen laguntzea asmoa du programa honek.



Angel Garay, Lasarte-Oriako alkatea eta herriko farmazietako arduradunetako batzuk.

Etxez Etxeko Laguntza sistema parte hartzen duten erabiltzaileek beraiek nahi duten herriko farmazia aukeratu dute, Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarteak ekimen honetan parte hartzeko akreditatutakoa.

Erabiltzaile bakoitzak, parte hartu aurretik, dokumentu bat sinatuko du baimena emateko; elkarriketa bat egingo zaio bere fitxa egiteko, hartzen dituen medikamentuen eta

dituen osasun arazoaren informazioa jasoko duena. Medikamentu aldaketak ere kontuan izango dira.

Hamabost eguneroko, farmazuetikoa sendagaiak prestatu eta banatuko ditu.

Era honetara, dosifikazio sistema personalizatua izango du pazienteak eta eguneko momentu bakoitzean hartu behar duen dosi egokia eta honen informazioa ere. •

Maiatzaren 22ko hauteskundeetan Lasarte-Oriako alkatetzarako aukeratu diren hautagaiek...



JESUS ZABALLOS



PABLO BARRIO



ESTITXU ALKORTA



ANA ISABEL PRIETO



VANESSA VELEZ



RICARDO ORTEGA



NATXO IZETA



MAYI BENGOTXEA

Datorren astelehenean, hilaren 16an, hautagaiek euren hauteskunde programaren ildo nagusiei buruz solastuko dira tarte honetan

pe luzerako lan egin behar da, ez da gaurik bitarrena konponen den gai bat...

uraren dugun krisia ez da adfali balarako, krisi sistemakoa da. Kapitalismoaren eragin aldatuak ez dira...

Dirubide publikoen administrazioa sakonetei aldatzeko prest gaituta, indarguren hauetan oinarrituta:

Argi daukagu Udalaren finantzak arlo askotan, ekonomia familiarren eraren aldekoa direla. Gastuak kontrolatu eta diru-sarrerak bultzatu behar dira.

Europako Madril zein Gasteiztik inposatu nahi dizkizuten doitzak neurri eta murrizketei aurka egiten behar zaie...

Lanik edo besteakof diru sarrearririk gabeko guren den jendakari bizi ahal izateko...

Krisi ekonomikoaren arazo oso eroso arazo larria da udaleko politikarrek konpondu ahal izateko.

Gure herrietan desberdintasunak ahalik eta gehien murriztu behar dira, eta gertatu behar du...

Bazerketa sozialik ez gertatuko gizarre zehar zuzentzeko ereduak...

uraren dugun krisia ez da adfali balarako, krisi sistemakoa da. Kapitalismoaren eragin aldatuak ez dira...

Dirubide publikoen administrazioa sakonetei aldatzeko prest gaituta, indarguren hauetan oinarrituta:

Argi daukagu Udalaren finantzak arlo askotan, ekonomia familiarren eraren aldekoa direla. Gastuak kontrolatu eta diru-sarrerak bultzatu behar dira.

Europako Madril zein Gasteiztik inposatu nahi dizkizuten doitzak neurri eta murrizketei aurka egiten behar zaie...

Lanik edo besteakof diru sarrearririk gabeko guren den jendakari bizi ahal izateko...

Krisi ekonomikoaren arazo oso eroso arazo larria da udaleko politikarrek konpondu ahal izateko.

Gure herrietan desberdintasunak ahalik eta gehien murriztu behar dira, eta gertatu behar du...

Bideoo Lagunak BEGIRATU GURE ESKAINTZAK! Inguruko erakusketarik onena!

Ate Irekiak Maatzak 21 10:00 GUX LA SALLE BERRUZPE ETA ZUK? La Salle Berruzpe LISB Andoain

ERRUGBIA

Errugbi eskolen topaketa igandean Michelinen

Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako arduradunek jakin arazten dute, igandean maiatzaren 15an, 10:00etatik aurrera Gipuzkoako Errugbi eskolen Topaketa izango dela, Michelinigo Kirol Gunean.

Lehenengo aldia izango da gure herrian horrelako topaketa egiten dena eta benjamin eta alebin mailako 200 bat haur bilduko dira bertan. •

OSTADAR K.F.

Denboraldi amaierako afaria

Ostadar K.F.-k jakin arazten du, denboraldi amaierako afaria maiatzaren 28an Araetan ospatuko duela.

Afariarako txartelak Ostadarreko bulegoan salgai daude, astelehene ostiralerara 18:00etatik 20:00etara. Tiketa erosteko azken eguna maiatzaren 20a izango da. •

Lasarte-Oriak gaur hasiko du herriartekoa

Gomazko palako txapelketako finala bihar jokatu da Michelinigo frontoian

Eskupilotako 44. Gipuzkoako herriarteko txapelketa duela bi aste hasi bazen ere, Lasarte-Oriak gaur emango dio hasiera Bidegoianen.

Gaur, 19:00etan, txapelketako final-laurdenetako joaneko partidak izango dira eta hurrengo astean, Lasarte-Orian jokatuko dira etorriko partidak.

Herriko taldeko arduradunek jakin arazi digutenez, kanporaketa berdin dago.

Honetaz gain, gaur Bidegoianen lehiatuko diren bikoteen izenak ere aurreratu dizkigute.

Honela, kadete mailan, Axier Arteaga eta Ander Rekondo izango dira; jubenetan, berriz, Unai Urruzola eta Beñat Telleria eta hirugarren partidan, seniorretan, Aitor Aranburu eta Mikel Lolola.



Aurreko edizikoan final laurdenetara iritsi zen Lasarte-Oriako eskupilota taldea.

Antolatzaileek azaldu digutenez, "jubenetako bikotea oraindik kadete mailako da. Partehartzeko erabakia hartu dute taldea osatzeko. Izan ditzaketen emaitzengatik

ere, eskertzekoa da egingo duten esfortzua."

Pala Finala

Bestalde, Ostadar K.F.-k antolatzen duen Gomazko pilota-

ko pala txapelketako finala jokatu da bihar Michelinigo pilotalekuan.

Aurten gainera, txapeldun berriak izango dira txapelketan. Oskar Lazkano eta Iñigo Arluziaga bikotea zazpi urtez nagusi izan arren, aurten ez dira txapelketako azken fasera iritsi.

Gauzak honela, final handian, 17:30ean, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin eta Jon Begiristain eta Xabier Etxezarreta bikoteen arteko lehia ikusiko da.

Aurretik, 16:30ak aldera, txapelketako 3. eta 4. postuak erabakiko dituen norgehiagokak dago. Honetan, Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibarrek Josu Iparragirre eta Koldo Rozas izango dituzte aurrez aurre.

Ostadarreko antolatzaileek herriko pala zaletuei deialdia egiten diete txapelketako azken partidak ikustera. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 14

11:00etan, Ostadar - Urola (Infantilen Ohorezko Maila, txapeldunen fasea) Michelinen.
11:00etan, Tolosa - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila, igoera fasea) Usabal, Tolosan.
12:30ean, Lazkao - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II, txapeldunen fasea) Arizti Handi, Lazkao.
13:30ean, Touring - Ostadar (Infantil Txikiak, kopa) Fanderia, Erreterian.
15:30ean, Ostadar - Amaikak Bat (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.
17:00etan, Beti Gazte - Ostadar (Erregional Goren) Mastegi, Lesakan.
17:15ean, Ostadar - Landetxak (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.
17:30ean, Añorga - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Añorgan.
19:15ean, Asoleus - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Herrera, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 13

HERRIKO TXAPELKETA
Finalerako Fasea, etorriko finalerdiak Kiroldegian
20:00etan, Semblante Andaluz - Izkiñ
21:00etan, Buenetxea - ISU Leihok

Larunbata 14

17:00etan, Aldaz H.K. - Donostiako Zuzenbide Naturgas Energia (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligaxkako etorriko finalerdiak Michelinigo kirol gunean
11:00etan, IOB - Ilargi

12:00etan, Oria kristaldegia - Ayete

Igandea 15

12:00etan, Debabarrena - ISU Leihok (Gipuzkoako Liga, I. maila) Ipuruia kiroldegia, Eibarren.

PILOTA

Ostirala 13

18:00etan, Usurbil 2 - Intza (Udaberri txap., eskuz binaka, infantilak) Aginagan.
19:00etan, Bidegoian - Lasarte-Oria (Herriarteko txapelketa) Bidegoianen.
19:15ean, Ziotza - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banakako 4 t'erdikoa, I. kadetea) Intxaur, Zizurkilen.
19:30ean, Hondarribi - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banakako 4 t'erdikoa, II. kadetea) Jostaldi, Hondarribian.
20:00etan, Mundarro - Intza (Udaberri txapelketa, eskuz banakako 4 t'erdikoa, II. kadetea) Astigaragan.

Larunbata 14

15:30ean, Intza - Hernani (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Michelinen.
15:30ean, Intza - Aurrera Saiaz (Udaberri txapelketa, eskuz banakako 4 t'erdikoa, I. kadetea) Michelinen.

SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA

18:00etatik aurrera

Ostirala 13

Fernando Montero - Oinatz Iparragirre Raul Mateos - Patxi Delgado

Astelehena 16

Iker Cañedo - Michel Zugasti Irati Agirre - Joaquín Peña

Asteartea 17

Xabier Linazasoro - Iñaki Garcia Javier Delgado - Veronica Gonzalez

Asteazkena 18

Jon Linazasoro - Agustín Erkizia Oswal Cañedo - Alberto Udabe

Osteguna 19

Emilio Hernandez - Fernando Montero Quinin Calvo - Raul Mateos

PALA

Larunbata 14

Gomazko pilota Txapelketako Finala Michelinigo pilotalekuan
3. eta 4. postua

16:30an, Iñaki Lizaso eta Joserra Alzibar - Josu Iparragirre eta Koldo Rozas

Final handia

17:30an, Bernaitz Odriozola eta Santi Martin - Jon Begiristain eta Xabier Etxezarreta

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 14

10:45ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek XXIII. Deba Sarian parte hartuko dute.
16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Gipuzkoako errepideko txapelketa dute, Seguran.

Igandea 15

08:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak irteera egingo du, Urrestillara.
10:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenetik Gipuzkoako errepideko txapelketa-XXIX Atxukale Saria dute, Mutrikin.

TENISA

Larunbata 14

Egun osoa, Oihane Lizaso tenistak infantil mailako euskadiko txapelketa-Manuel Alonso torneoan parte hartuko du, Laukarizeko klubean, Mungian.

ATLETISMOA

Larunbata 14

16:30etik aurrera, LOKEko atletek kadete, jubeni, junior eta veterano mailako Gipuzkoakotxapelketan parte hartuko dute, Tolosan.

Igandea 15

10:00etan, herritar talde batek Donostiako maratoni erdian parte hartuko du.
10:00etan, herritar talde batek Erlaitz-Aiako Harriak mendiko maratoni erdian parte hartuko du.
10:30etik aurrera, LOKEko atletek kadete, jubeni, junior eta veterano mailako Gipuzkoakotxapelketan parte hartuko dute, Donostian.

IGERIKETA

Larunbata 14

Egun osoa, Buruntzaldea IKT-ko alebinen Gipuzkoako txapelketa dute, Ordizian.

Igandea 15

Egun osoa, Buruntzaldea IKT-ko gazte-txoket eskolarteko Gipuzkoako txapelketa dute, Ordizian.

GIMNASTIKA

Larunbata 14

Egun osoa, LOKEko gimnastek Esko-

larteko eta Amateur federatuen Gipuzkoako txapelketako finalean parte hartuko dute, Ibarra.

JUDO

Larunbata 14

Egun osoa, LOKEko Mario Garrido, Esteban Martinez eta Leire Zubizarretak Espainiako Ligako azken jardunaldian parte hartuko dute Ama Guadalupeko taldearekin, Madril.

Igandea 15

Goiza osoa, LOKEko alebinen Gipuzkoako txapelketa dute, Hernanin.

ERRUGBIA

Igandea 15

Goiza osoa, Beltzak Ostadar Jalai Errugbi eskolako alebin eta benjamin mailako gaztetxoek topaketa dute, Michelinen.

BOLA-JOKOA

Igandea 15

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Gipuzkoako Kopako azken jardunaldia du, Aian.

ESKOLA KIROLA

Larunbata 14

09:15etatik 10:30era, Landaberri eta Sasoea-Zumaburu ikastetxean Multi-kirola egiten duten LH3 eta LH4 mailako gaztetxoek Futbol topaketa dute, Michelinen.

Egunero

Erakusketa

LASARTE-ORIAKO AUZO ELKARTEKO MARGO ETA MARRAZKI kurtso-ko IKASLEEN erakusketa. Kulturetxean, 18:00-21:00.



Erakusketa

PALESTINA ETA GOLANeko GIZA EUSKUBIDEAK argazki erakusketa Mundu Bat GKE-ren eskutik Jalgin.



Ostirala, 13

Kontzertua

PARA QUÉ ENGAÑARNOS (Ska, Rock) taldearen emanaldia. Doan. Abend kafe-antzikian, gauerko 12etan.

Larunbata, 14

Kontzertua

VACIO LEGAL + LADY KOTXINAS taldeen kontzertua. Sustrai tabernan, 19:30etik aurrera.



Seme-alaben obedientzia hizpide

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "Semeak/alabak ez dit obeditzen" hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok.

ASTEAZKENEAN, HILAREN 18AN
KULTURETXEAN
18:00ETAN

Igandea, 15

Zinea

RIO animaziozoko filma, haurrentzako zinea sailean. Sarre-
ra, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ



Ostirala, 20

Hitzaldia

EGURALDIARI BURUZ arituko da Txanetenea baserriko Joxe Ramon Apaolaza. Zabaleta auzoan 20:00etan.



Bakarrizketa

KIKE BIGURIEN bakarrizketak Xpressionk, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz antolatzen duen Xpressionk Zirkuituan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan, GAZTELANIAZ.



Antzerkia

BUAH TXABAL antzerki emanaldia. Unai Iturriagak idatzitako lana Jon Zubiagak taularatuta. Kultur Errotaren barruan. Jalgin, 22:30ean, EUSKARAZ.

Kontzertua

WHA WHA BUGA BAND taldearen reggae, blues eta rock doinuak entzuteko kontzertua. Doaneko emanaldia. Abend kafe-antzikian, 00:00etan.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Zabaleta auzoko jaiak

Zabaleta auzoko lagunak ekainaren lehenengo astean egingo diren auzoko jaiak antolatzen hasi dira. Bilerak ostegunetan Antonio Blas plazako garajearen egingo dira.

Arantziatik Lasarte-Oriako oinez

Ostadar Mendi elkarrekin Juan Xar eremutik, Arantziatik Lasarte-Oriako mendi ibilbidea antolatu du maiatzaren 21erako. Ondoren, indarrak berreskuratzeko Zubietako elkartean afaria izango dute. Izena emateko jo Lagunak elektrizitate dendara. Inskribatzeko azken eguna, maiatzaren 13an ostirala, izango da.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren eskumuturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, bi telefono mugikor bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrak, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Gazte Klubeko ekintza

Bihar larunbata, hilaren 14a, arratsaldeko 16:30ean hasita eta bi ordu inguru iraungo duen "Sorginaren bila" ekintza egingo dute Amaraun Ludotekan Gazte Klubekoek. 9 eta 12 urte bitarteko gazte txoek hartu dezakete parte, horretarako, arratsaldeko 16:30ean Amaraun ludotekara azaltzea besterik ez dute.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Eskutitza

Mahaingurua

Lasarte-Oria Bizirik gure herriko politikarien arteko jendaurreko eztabaida mahai inguru bat antolatzen ahalegindu gara, horretarako Lasarte-Oriako udalaren ordezkariak dauden alderdi politiko guztietako ordezkariak gonbitea egin diegula. Eztabaidatzeko gaia, hondakinen gaurko eta etorkizuneko kudeaketa izan da.

Tamalez, jaso dugun erantzuna etsigarri izan da. EB, LOHP (alderdi guztiek parte hartzeko baldintzapean) eta "adskribitu gabeko" (EAE-ANV) zinegotziek baiezko erantzuna eman badigute. PSEk, PNvk PPK eta H1ek, ordea, koldarkeria gatik ala axolagabekeria gatik, erantzun ere ez digute egin.

Laster, hauteskunde kanpaina berria hasiko da eta alderdi politiko guztiek herritarron eta gure bizikaltatearen alde ahalegin guztia egiten dutela behin eta berri errepikatuko digute.

Gure ingurunean errausketa-instalazio bat eraikitzea eta martxan jartzea guztion kalterako osasun publikoko arazo larria da. Dirurik ez dagoelako aitzakian gizarte eskubiak murrizten ari zaizkigun bitartean, beharrezkoa ez den eta erabat kutsakorra den industria bat eraikitzeak ehundaka miloi euro ordainarazten dizkigute.

Hondakinen ematen zaien azken trataera, aurretik erabiltzen den bilketa sistemak erabat baldintzatzen du. Eta hondakinak biltzea udal bakoitzari ez beste inori dagokion ardura da.

Hondakinen bilketa bezain gai garrantzitsua ere horrelako axolagabekeria erakusteak sutan jartzen gaitu. Herriaren alde lan egiten omen dutenek herritarrek/herritarren aurrean eztabaidatzeari uko egiteak agerian uzten du benetan zenbaterainoko mespretxua dioten herritarren iritzia.

Gai honekiko isiltasunak ala hitz hutsek errausketa-instalazioarekiko zenbait politikoren konplizitatea salatzen dute

Lasarte-Oria Bizirik

